

Gaurtik aurrera, Arabako artisauen produktuak erosi ahal izango dira online denda berri batean

Zeramikazko, ehunezko, zurezko eta arte grafikoetako lanak eta kosmetikako produktuak eta jostailuak izango dira salgai artesaniadealava.com web atarian, eta etxean jasotzeko aukera izango da

Cristina González: “Tresna baliotsua jartzen dugu artisau sektorearen eskura, bere lana erakutsi eta merkaturatu dezan, eta bide bat eskaintzen diegu herritarrei, pieza eskusiboak eskuratzeko, bermearekin eta segurtasunarekin”

Gasteiz, 2021eko abenduaren 29a.- Gaurtik aurrera, Arabako artisauen produktuak erosi ahal izango dira online denda berri batean, berme eta segurtasun osoz, eta etxean jaso ahal izango dira, gainera. Web atarian berrian (artesaniadealava.com) zeramikazko, ehunezko eta zurezko hirurogei sorkuntza eta lan baino gehiago izango dira salgai, bai eta jostailuak, kosmetika naturaleko produktuak eta arte grafikoetako sorkuntza originalak (libretak, koadernoak ...) ere.

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailak Arabako Artisau Elkartarekin (Artisau) batera bultzatzen eta finantzatzen du proiektu hau.

Cristina González Enplegua, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko foru diputatuak eta María García Hermoso Arabako Artisau Elkarteko ordezkariak prentsaurrekoan aurkeztu dute ekimena, eta adierazi dute uste osoa dutela tresna “oso baliotsua” dela artisau sektorearen lana “erakusteko” eta ohiko banaketa bideak “indartzeko”.

“Online denda hau gure artisauak beren lanak Arabako eta Espainiako bezeroei ezagutzera eman, erakutsi eta saldu ahal izateko erakusleihen birtual berria da, baita Arabako eta beste probintzia eta autonomia erkidego batzuetako herritarrek beren ordenagailuen edo telefono mugikorren bidez artisau pieza originalak eta eskusiboak aurkitu eta erosi ahal izateko bide berria ere. Eta, gainera, berme eta segurtasun osoz egin ahal izango dute”, nabarmendu du Cristina Gonzálezek.

Gonzálezek azaldu duenez, artisau gehienek azoka eta merkatuetan saltzen dute beren lana, bai eta, kasu batzuetan, beren tailerretan eta/edo dendetan ere, eta adierazi du zaindu eta eutsi egin behar zaiela merkaturatze bide horiei, baina, hemendik aurrera online denda hau ere erabili ahal izango dutela artisauak. Web atari hau bereziki erabilgarria da pandemiari lotutako murrizketek merkaturatze bide tradizionalei eragiten dieten une hauetan.

Online denda gaur jarriko da martxan, eta zeramika, ehunak, zura, kosmetika, arte grafikoak eta jostailuak lantzen dituzten Arabako zazpi artisauen hirurogei lan baino gehiago izango dira salgai. Datozen hilabeteetan pixkanaka-pixkanaka hazi nahi dute, artisau, obra eta lanbide gehiago gehituz; izan ere, “Arabako artisau guztiei irekitako proiektua da”.

Zuzeneko harremana

Web atariaren diseinua erakargarria eta intuitiboa da, eta, ondorioz, eroso nabigatzen da ataletatik. Hasierako orriak Arabako artisauen sorkuntzetarako sarbide zuzena ematen du, lanbidearen eta erabilitako artearen arabera (arte grafikoak, zeramika, kosmetika, jostailuak, zurgintza eta ehungintza); produktuaren deskribapena eta artisauari buruzko informazioa ere ikus daitezke, eta erosi nahi diren produktuak hautatzeko eta erosketa organ sartzeko aukera ematen du.

Ordainketa egiteko, kreditu txartela aukera daiteke, edo, bestela, ordainketa azkarra, Paypal edo Google Pay bidez.

Salgai dauden produktuak lanbideen arabera antolatuta edukitzeaz gain, online denda berrian minutu eta erdi irauten duen bideo bat dago ikusgai, Arabako artisauen lana eta sorkuntzak erakusten dituena, eta beren lanak webgunean salgai dituzten artisauen zerrenda bat, beren historiari eta jarduerari buruzko informazioa ere baduena, bai eta artisauekin harremanetan jartzeko datuak ere (web orria, sare sozialak, telefonoa eta posta elektronikoa), kontsultak egin edo zalantzak argitu ahal izateko.